



herriko plaza

Alderdi guziak ari dira beren presentazioak egiten. Alderdiok zer diren jakiteko, inoiz ez dugu orain dugun beste informazio izan. Eta inoiz ez dugu okerrago jakin, zer arraio prijitu diren Alderdiok benetan.

Orain, PSOE-PCE abertzale dira, esate baterako. Baina, bestalde, PNV ez al da sozialista ?

Horiek ez dira agertu zaizkigun abertzale-sozialista bakarrak. Denak dira orain abertzale eta sozialista. Nola berezi, nor zer den?

Horregatik, promesa garaiak deskonfiantza garaiak dira. Batek esaten du, PSOE-PCE aldetik: "guk ez dugu sinesten PSOE-PCE horiek abertzale direnik". Deskonfiantza garaiak dira promesa garaiak eta halaxe izan behar dute.

Bide bat, Alderdiok zer diren argitzeko, beren historia izan liteke. Baina ez du asko balio. Lehenengo, ez du erizpide garbirik ematen, bakoitzak bere erara hartzen duelako historia. Alderdi historia, batez ere. Gainera, azkeneko berrogei urte honetan klandestinitate historia egin da, eta nekez ateratzen ahal dugu handik "libertate demokratikoetan" Alderdi batek zer egingo digun. Areago, leku ezberdinetatik eta erantzukizun diferentetz egin dute Alderdiok historia: PCE inoiz ez da aginpidean egon, PSOE-k Madrilen agindu du, PNV-ak gerra artean. Alderdi berriagoez aritzeagoz aritzekotan, haien "historiak" beste sentido bat hartzen du.

Batez ere Alderdi bakoitzaren praktiari begiratu behar zaio, esan beharko dugu. Halaxe bait da. Baina Alderdi bakoitzaren historiari begiratzeak daukan problema guziak aurkitzen ditugu berriro.

promesak

Beste erizpide bat izan genezake, Alderdiotako teorikoek Espainiako historia nola juzkatzen duten. XIX-gn mendeko historia, esate baterako, gurutziala da guretzat. Irikitzen dut aldizkari komunista teoriko bat, ikasientzakoa edo, eta ikusten dut, liberalismo zentralistaren obrari guziz progresista derizkiola... Orduan ez dakit antizentralismoak zer esan nahiko duen.

Orain, bistan da, denak dira "nazio espainol diferenteen" eskubide aldeko. Zuzen-zuzen hortaz guziek esaten dutena —promesak besterik ez— berdintasuna bait da, beste erizpide bat, bakoitzari zer ulertu jakiteko, aldameneko konzeptu nagusiak aztertzea izan liteke. "Estatu" konzeptua, adibidez. Edo antolaketa ekonomikoa, eta abar, nola bururaten dituzten. "Iraultza egiteko tresna Estatuak izan behar du", irakurtzen diot buruzagi sozialista bati. Ikaraturik utzi nau, horren federalismoa zer izango ote den.

Promesa garaia, deskonfiantza garaia. Baina, itxaropenetik ere bizi da gizona. Eta, horregatik, badut itxaropenik gaur abertzale eta sozialista agiri diren guzik, bihar beren hitzek obligaturik agertu beharko dutela, nola edo hala. Hola hitz egitera behartzen dituen giroak, ez ote ditu horrelatsu jokatzera behartuko? Beraz, promesa garaia, konfiantza garaia. Presioak dirauen artean, lehenengo hitzak behartu baditugu, gero obrak behartuko ditugu.

JOXE AZURMENDI